



Pako Sudupe

◆ IDAZLEA

Katalunia berri baterantz

BI MILIOITIK GORA BOTO etorki-zun politikoa erabakitzearen alde; eta horietatik %80 independentziaren alde. Ilusioz, emozioz eta arduraz egin dute lehen urrats garrantzizkoa. Zorionak!

Nolatan hain denbora gutxian kontzientzia iraultza hori? Franskismotik zetorren kontzientziari, hizkuntzaren eta kulturaren alde-tik zapalduta egotearen sentimenduari, azken urteetan beste bi sentimendu erantsi zaizkio: umiliazio politiko eta ekonomikoarena. Kataluniako Parlamentuan 120 aldeko botoz eta aurka-ko 15ez onartu zen Estatutuari irri egin zioten Madrilen, “zepillatu” zuten; eta diru aldetik ohartu dira Estatuari eman dezente gehiago egiten diotela handik bueltan jasotzen dutena baino.

Hiru sentimendu indartsu horiek bi talde zabal indartu eta kohesionatu dituzte: Parlamentuan gehiengo zabala duten ordezkari politikoak, eta herri zabala, Omnium Cultural –hizkuntza eta kultura katalana sendotzeko erakundea (1961)–, eta ANC –independentzia modu demokratiko-baketsuz lortzeko mugimendua (2012)–, kontzientziarazle direla. Zer-nolako garrantzia du mugimendu horretan Casals-Forcadell, eta Fernandez-Junquera-Mas bezalako liderak sortu izanak? Eta bi erakunde politiko-kultural horiek aktibatzen dituzten herritarren olatuak? Erantzuna irakurlearen esku. Lortuko ote dute 2014ko azaroaren 9an egindako urrats handiari, beste pauso are handiagoak eranstea, Katalunia berri bati buruz?

Espainiarrek inposizioz ezarritako kateak hausten joateak ez du esan nahi era berean automatikoki herritarren desberdintasun ekonomiko-sozialak murriztera eta demokrazia zabaltzera joko denik –prozesu horrek lagundu dezake, beharbada, gizarte justuagoa ere lortzen–; ikusteko dago Europar Batasunak ezartzen dituen neurri ekonomikoei –AEBak ahaztu gabe–, eta mundu osoko enpresa multinazionalen botere gero eta handiagoari aurre nola egingo dieten; baina zein ederra den bere buruaren kontzientzia duen herri bat batuta eta gehiengo norabide berean bultzaka ikustea bestelako antolaketa baterantz, ustez eta asmoz, hobera!

Zein ederra den bere buruaren kontzientzia duen herri bat batuta eta gehiengo norabide berean bultzaka ikustea bestelako antolaketa baterantz, ustez eta asmoz, hobera!

Gure talaiaitik, morrontzateak erabat haustea baino ezin opa, eta gizarte justuago eta demokrazia zabalagorantz urratsak egitea, elkartasunez bezainbat geure askatasun politikoaren maitasunez, guk ere aurrerago errazago izango dugulakoan orain katalanak aurreratzen bazaizkigu. ■



BERTSO BERRIAK

Ziburuko ikastola



DANI BLANCO

Eneritz Zabaleta
Apaolaza

◆

Doinua: Gernika.

Doinu zaharrez beztitu zaigu azkenaldiko tonika kanta beharrez hizkuntza baten heriotzaren kronika. Hamahiru haur eskolatuak argindarra itzalita jada ez dakit nola jarraitu kantuz ala garrasika.

Auzapez jaunak lehenik egin du gure euskararen omena gero ikastola kanporatu du Kaxkarroten eromena! Bakotxak bere ardura eta bakotxak bere hobena. Arazo ez zen afera hori konpontzeko da orena.

Etxean arrotz nahi gaituztenek non ote dute brujula? Ele euskarazale xuriek ez gaitzaten nahas sekula Bidasoatik gora euskarak ez du sustengu ahula baina ez daigun ahantzi ere etsaiak baditugula. ■

